

Publicaciones de la Cátedra 'Luis Michelena'
'Koldo Mitxelena' Katedraren Argitalpenak
[4]

2nd CONFERENCE OF THE LUIS MICHELENA CHAIR
KOLDO MITXELENA KATEDRAREN II. BILTZARRA
II. CONGRESO DE LA CÁTEDRA LUIS MICHELENA

Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui & Blanca Urgell
(Eds./Arg.)

aman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

CIP. Biblioteca Universitaria

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Cátedra Luis Michelena.
Congreso (2.º 2007. Vitoria-Gasteiz)**

2nd Conference of the Luis Michelena Chair = Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra = II. Congreso de la Cátedra Luis Michelena / Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui & Blanca Urgell (eds.= arg.). — Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2011. — xx, 699 p. ; 24 cm. — (Publicaciones de la Cátedra “Luis Michelena” = “Koldo Mitxelena” Katedraren Argitalpenak ; 4)

ISBN: 978-84-9860-601-0 D.L.: BI- 290-2012

1. Euskara (Lengua) – Congresos. I. Lakarra, Joseba A., ed. lit. II. Gorrochategui, Joaquín, ed. lit. III. Urgell, Blanca, ed. lit.

811.361(063)

All rights reserved. No part of this publication may be reproduced, stored in a retrieval system, or transmitted, in any form or by any means, electronic, mechanical, photocopying, recording, or otherwise, without the prior permission of the University of the Basque Country Press.

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

© Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui & Blanca Urgell (Eds. /Arg.)

© The authors / Egileak / Los autores

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-9860-601-0

Lege gordailua/Depósito legal: BI - 290-2012

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Axularren *Gero* liburuaren lehen edizioa. Aleak, aldeak eta zuzenketak

Patxi Salaberri Muñoa
UPV/EHU

Abstract

The text that is considered to be the first edition of Axular's *Gero* is the one published in 1643 in Bordeaux by Guillaume Milanges. However, this edition has some characteristics which are not very wide-known, as well as some printing mistakes that were subsequently corrected by hand in some copies (but not in all of them). The purpose of this article is first of all to fix the exact number of all those copies that are scattered all over the world; secondly, to identify their general characteristics; and finally, to present the problems caused by the corrections added by hand in some of the copies before the publication of the first edition.

0. Ene eguneroko ohituren artean bada bat, fruituetan ikusten dudanagatik zeharo kaltegarria, aspaldi desagertutako idazleekin gosaltzera eramaten nauena. Saiatzen naiz diskriminaziorik ez egiten: ospetsuak, erdipurdikoak zein laugarren mailakoak, ordu laurden eskas batez bada ere, guztiei egiten zaie tokia etxeko mahaian. Goizero, beraz, elkartu ohi naiz haietakoren batekin.

Gaurkoan Tolstoi izan dut gosalkide, eta, egia esan, erdi damaturik geratu naiz hura gonbidatzeaz bihar ehun urte duela idatzitakoak errepikatzen hasi zaidanean: «Gizonak ez daki zer den ona eta zer den txarra, baina ikaragarritzko disertazio luzeak idazten ditu erori den aerolitoaz edota *ajenuz* hitzaren etimologiaz».

—«Arraioa! Ez duk, bada, nitaz arituko?»— izan da pentsatu dudan lehen gauza.

Inoiz menderatu ez dudan diplomaziarekin isilarazi dut berehala, lotsagabegia iruditu baitzait haren aldetik, hemen Sarako literatur aerolitoaz aritzeko bi ordu baino falta ez zitzaidanean, ene ezjakituria leporatzeari ekitea.

Gehiegizkoa, batik bat atzokoan Seneka zaharrak ere inork eskatu ez zizkion hitzekin garratzu nahi izan zidalako gosaria.¹

Beldur naiz ez ote den ene filologi lanaren aurkako estrategia sistematiko eta zehatz koordinaturen baten lehen eraso teorikoa baizik.

1. Gure Literatura Klasikoak eskuidazkien arloan utzitako gabezia erabatekoa da. Eta ez dugu Axular horretan salbuespena, ez baitzaigu, guk dakigula, haren lanaren eskuizkriburik iritsi. Egun, beraz, urdazubiarra bizirik zela argitaratu zen *Gero* liburuaren edizioa baino ez dugu hipotesi desberdinetarako abiapuntu. Hori dela eta, oinarri sendoagoko agertu ohi zaizkigu hipotesi batzuk eta oinarri ahulagoko beste batzuk, nahiz eta kontraste desberdinen premian gehientsuak. Zeren eta aski baita liburuaren historia ezagunari begiratu bat ematea frogatu gabe geratu zaizkigun axulartar axioma gisakoak behar baino gehiago direla ohartzen hasteko.

Aurreko bi mendeotan, esate baterako, ospetsuak izan ziren *Gero* liburuaren edizioez sortutako eztabaidak eta buruhaustekak eta, areago, oraindik orain bizirik dirauten aieru funsgabeak. Ez ditugu guztiak hona ekarriko,² baina komenigarria izan daiteke nabarmenenak bederen gogoraraztea.

Liburuaren «bi parte»-ei buruzkoa eta besteren bat alboraturik, gauza jakina da, esate baterako, edizioen arteko nahasmenduak eta kaleratze-dateak sortarazi zituztela lehenengo okerrik garrantzitsuenak. Ildo horretatik —eta inori harrigarrietakoa lehen edizioari bigarrenaren titulua ematen ziona³ iruditu balekioke ere—, miragarria da, zalantza gabe, egun munduko hainbat liburutegi entzutetsutan gertatzen den paradoxa, bigarren edizioa 1642kotzat

¹ «Ezterako balio al du beste hamaika gauza, gezurretakoak edota gezurren pareko direnak, jakiteak? Zeren eta, hauek guztiak fede onez esaten dituztela onartzen baduzu ere, zerbait berresteko idazten badituzte ere, noren hutsak gutxituko dituzte kontu hauek? Noren grinak zuzenduko dituzte? Nor egingo dute adoretuago, nor zuzenago, nor gizabidetsuago? Gure Fabianok zioen noizean behin zalantza egiten zuela ez ote zen hobe inolako zaletasunik ez izatea, haien artean harrapaturik sentitzea baino» (Seneka, *De brevitae vitae* 13, 8-9).

² *Geroren* idazte-daten ingurukoa da lehenengo galdera erantzungabea, Axularren obrari buruz dauzkagun erreferentzia guztiak orain arte euskarri bakar bat baitute: haren lana bera. Obraren idazte prozesuari buruzko hausnarketek, beraz, hipotesien esparruan geratu beharko dute bestelako datu objektiboagorik azaldu arte. Gainontzekoak hanka-sartzerako bidea baino ez dira, Urkixori berari beste saratar baten testuan oinarritutako irakurketa —bitxia— egitean gertatu zitzaionak erakusten duen bezala. Eta ez dirudi *Geroren* orrialdeetan barrena ematen den informazioak gehiegi lagun dezakeenik arlo honetan. Horien artean, erredakzio-urteez mintzo litekeen bakarra liburuaren amaieran isuritako albiste bat da. Hain zuzen ere, 58. kapituluan, § 1 atalean ematen zaigu datua lerro horiek noiztsu idatzi (zuzendu?) ziren jakiteko. Testua honako hau da: «Baldin galdeguin baliacote orai Iudasi. Erraçu discipulu gaixtoa, ceure nabusiaren saltçaillea, cenbat dembora du, barren horretan, ifernuco pena horietan çaudela? Ihardets leçaque -Badu *milla, eta seyetan ehun urthe, eta guehiago*» (602. or.; letra etzanak gureak dira). Kristau kronologia arunta erreferentzia-puntutzat hartuz gero, Judasek garai berriko 33. urtean bota zuen burua.

³ Ikus, esaterako, Tamizey de Larroque-ren artikulua izenburua: «De la date de la 1^e édition du Gueroco Guero» (*Revue de Gascogne* XV, 1874, 340. or.).

baitute katalogaturik, *princeps* argitalpentzat duguna baino urtebete lehena-gokoa bailitza, alegia.

Akats-kate horrek Larramendi, Xaho eta F. Michel ditu iturri, andoain-darra batik bat.⁴ Zuberotarrak ere nahikotxo nahasi zuen bibliofilo euskaltzaleen mundua eskuen artean izan omen zuen liburuari buruzko informazioa ematean.⁵ Ondorioz, bigarren argitalpenari jarritako izenburu berrituari (*Gero*), inon oinarritu gabeko argitaratze-data ezarri zion bat-batean da-tuetarako axolagabe samar agertzen diren erromantikoen ildoko autore apa-sionatu honek.⁶

Erreferentzi anabasaren aurrean, zalantza egin zuen Michelek Xahore-kiko: «aurait-il vu la première édition?» (1857: 1983, 474. oharra). Alabaina, ezin hobeto etorri zitzaion haren iradokizuna berak esku artean zeukan bi-garren edizio datatu gabea 1642kotzat azaldu ahal izateko. Nonbait, bigarren edizioa aztertzean, eta urterik gabe zetorrela ohartzean, hitzaurrean aurkitu-riko data eman zuen argitalpen-urtetzat.⁷

Guztiarekin ere, Michelek eman zituen datuei erreparaturik gero,⁸ ez da zalantzarik egun bigarren ediziotzat ezagutzen dugun horretaz ziharduela.⁹ Baina bistan da edizioaren arrarotasunak adituek ziotenez fidatzera eramán zituela bibliomano euskaltzaleak.

⁴ «Mais quelle peut être la date de la seconde édition? Larramendi, que tous les Bibliographes ont suivi, dit qu'elle est de 1642» (Vinson 1891: 1983, 87). Honela dio andoaindarrak hiztegiaren hitzaurrean, *Guerocó guero* izeneko liburua dela eta: «Està impresso en Bourdeaux año 1642. como consta en las aprobaciones y licencias» (Larramendi 1745, I. lib., xxxv or.).

⁵ «El primer libro que me cayó a mano fué el *Gueroco guero* del elocuente Axular [...] Su libro publicado en 1640» (Xaho 1836: 1930, 106).

⁶ Xahok proposatutako datu okerrean artean, hurbilago ibili bide zen Axularren jaiotze ur-te iradokitzean: «vino a establecerse en Laburdi a los treinta años» (*idem*). Baina, aurrekoan ez bezala, horretan inork ez zion segitu, nahiago izan baitzen berrogeitaka urteko Axular ilun baten irudia eraiki.

⁷ «[...] Bigarren edicionea corrigetua, eta emendatua, Bordelen, eguina G. Milanges, Erregue-ren imprimitçaillea, baitihan 1642 [...]» (Michel 1857: 1983, 474, oharra; gurea da letrakera etzana).

⁸ «L'édition de 1642, la seule qui existe, est, comme nous l'avons dit, defectueuse et remplie de fautes» (Michel 1857: 1983, 474-475). Orripeko ohar batean, bigarren edizio honetako li-buruen eskasiaren inpresioa zabaltzen du idazleak: «Le seul exemplaire de ce livre que j'ai vu passer en vente publique est celui de Silvestre de Sacy (Catal., t. I, p. 271, n.º 1290); il fut vendu 28 francs 50 centimes. L'exemplaire décrit par Brunet (*Manuel du libraire*, t. I, p. 225, col. 2) est maintenant en notre possession, par l'abandon qu'a bien voulu nous en faire notre si regrettable ami feu M. l'abbé Ségalas, directeur de l'institution de Saint Palais» (Michel *idem*, oharra).

⁹ Ezin gera gaitzek Michel en harraren aurrean kezka agertu gabe. Izan ere, hark 1642ko-tzat zeukan liburuari buruzko albistearen ostein, Poitiersko Pressac liburuzainarena zen 1643ko *Gero* baten berri ere eman zuen, bibliografi erreferentzia guztiak eskainiz. Argi zen lehen edi-zioaren aurrean zegoela (izenburuaren ondokoa, esaterako, liburuaren bigarren parteari buruz ere mintzo da, bigarren edizioko izenburuaren ondoan desagertuko den informazioa hain zuzen). Zer dela eta, bada, itsutu zen Michel jauna liburu bien azterketan ondokapen kronologikoa oker egi-tzeko? Bigarren edizioaren itxura zabal, *primario* eta akatsez beteak okerrarazi ote zuen? Edozein gisaz, 1642an, galerada probetatik ateratako tirada «pirata»-ren bat kaleratu izan balitz ere, garbi dago ez zatekeela, Michelek dioen bezala, *Gueroco guero* titulatu, beherago ikusiko den legez.

J. Vinson bera izan zen, liburuaren onespén datetan oinarritutako arrazoiketa xume baten bidez, lehenengo edizioaren argitaratze data ongi bezain irmo finkatu zuena: «ces approbations sont de décembre 1642; elles devaient avoir été écrites, suivant l'usage, après la lecture du manuscrit, puisqu'elles étaient destinées à amener l'*imprimatur*, donc le livre n'a pu matériellement être publié avant 1643. Or c'est incontestablement là la date de la première édition» (Vinson 1891: 1984, 87).

Argi zen, hortaz, Axularrek *Gero* liburuaren 1643ko edizio hura baino ezin izan zuela ezagutu eta, hein batean bederen —hurrengo urtean hil izanak adierazten duenaren heinean, alegia—, «kontrolatu».

Esan gabe doa: horretan datza, hain zuzen, edizio hartaz ohartzeko premia eta —nola esango?—, atzematen diren distortsioak ikusirik, edizio «kontrastatu» edo izan litekeena proiektatzeari ekitekoa, horretarako lehen argitalpen hartatik geratu zaizkigun aleei begiratu bat ematetik hasi behar bada ere.

2. Liburuaren deskribapen gehienetan agertu bezala, urdazubiarraren *Geroren* lehen edizioak (1643) 631 orrialde ditu, haietako bi (439 eta 440) zenbaki errepikatuekin ondozkatuak¹⁰ eta aurkibideari dagozkion azken zortziak zenbaki gabe emanak.¹¹ Horretatik at, gauza jakina da ez dela bestelako albisterik lehen edizio honetaz; are gutxiago inprimatze kontuez (baldintzak, prezioak, ale-kopuruak, salmentak, etab.). Esku artekoa da dugun erreferentzia bakarra.

Iritsi ere, hala edo hola edizioaz mintzo zitezkeen ale gutxi batzuk baino ez zaizkigu iritsi egunotara, ikertzaile gehienentzat zeharo ezezagunak haietako zenbait.¹² Esana dugu dagoeneko egin gabe dugula oraindik haien arteko erkaketa xumea ere (ale guztiak berdín-berdínak diren inpresioa zabaldurik baitugu gure artean) eta, eskuarki, besteren erreferentzien bitartez baino ez direla ezagutzen.

Kontuak, halere, ez dira uste hedatuek iradoki bezalakoak. Besteak beste, egiaztaturik dago lehen ediziokotzat ditugun ale guztiak ez direla berdínak (ikus Salaberri 2007) eta, halaber, badirela haien artean guztiz garbi daudenak eta, bestalde, eskuz zuzendurik daudenak ere. Azken hauen artean era eta garai guztietako zuzenketak aurki daitezkeen arren, ez dira falta inprentatik atera baino lehenago burututakoak, hau da, tipografoek egindako akatsak zuzentzera bideratuak.

¹⁰ Vinsonen zioen moduan: «In-8° de 623 p. (chiffrés 621) et (viii) p. n. ch.- Signatures de A à Rr; A n'a que 8 p., B est à la p. 9, C à la p. 25, D à la p. 41, etc.- Dimensions: hauteur des pages 130 mm 5 (titres courants compris et signatures non comprises); justification 70 mm (86, 5 avec les manchettes)» (Vinson 1891: 1984, 85). Halaber, Lacombe (1943: 1956, 365) eta F. Michel (1857: 1983, 474. oharra).

¹¹ 1988ko faksimilak errespetatu ez zituen gauzen artean, azken kaiera erdiko orri-zenbakiak daude, jatorrizko edizioan zenbatu gabeko 622. orrialdean hasten baita aurkibidea (hots, «Liburu hunetaco capituluen contua»), eta ez 623.ean, faksimilean bezala.

¹² Beherago ikusiko den bezala, Vinsonen eta Lacomberen albisteetatik at, inoiz ez da aleen behin-behineko erroldarik aurkeztu.

Ezagunak diren aleen erroldatze eta ondorengo erkatze eginkizunak, halere, badu eragozpenik, lerrootan ikusiko den legez. Gogora bedi, lehendabizi, *Gero-*ren aleen kronika egiten hasi zenetik, lehen edizio hau hiru aldiz bakarrik egon dela «en vente publique». Honela zehazten ditu Vinsonek: «Pressac, 15 juin 1857;¹³ Libri, 2 août 1859, 13 liv. st. (325 fr., à M. Molini); Burgaud des Marêts, 16 mai 1873, 420 fr.» (Vinson 1891: 1984, 86). Gainerakoan, ez dirudi adostasun gehiegirik izan denik ikertzaileen artean ale-kopurua finkatzeko orduan, eta, zer esanik ez, haien ezaugarriak zehazterakoan. Horrelakoetan, ohi bezala, datu objektiboen artean ez da aieru eta hipotesi hutsalik ere falta.

Oro har —eta ondoko segidan—, Vinson, Lacombe eta Urkixo ditugu informatzailerik aberatsenak. Haien informazioa, edonola ere, ez da beti nahi bezain zehatza edota oparoa. Hona hemen zer dioten, laburturik.

1891ko *Bibliographie* delakoan Vinsonek 1643ko edizioaren sei ale besterik ezagutzen ez zuela idatzi zuen.¹⁴ Alabaina, 1898ko eranskinean (Vinson 1898: 1984, 545) zazpigarren bat erantsi zion zerrendari, Bibliothèque Mazarine izenekoan zegoena hain zuzen.¹⁵

Orotara, beraz, ondoko zazpi ale hauen lehen berri eskaini zigun Vinsonek:

- Louis-Lucien Bonaparte-rena.
- Donostiako «amateur» batena.¹⁶
- Mauleko beste «amateur» ezezagun batena.
- M. W.-J. Van Eys-ena.¹⁷
- Paueko Bibliothèque Municipale-koa (hiriko Jesuiten ikastetxe zahar-
rean egondakoa).
- Pariseko Bibliothèque Mazarine-koa.
- Vinsonek berak gordetzen zuena. Oso egoera txarrean omen zegoen
eta, dioenagatik, ez dirudi haren eskuetara iritsi zenetik hobetu zenik.¹⁸

¹³ Saldu baino lehenago ikusi zuen F. Michelek ale hori liburuzaina omen zen liburu-saltzailen honen bulegoan: «Enfin nous avons vu un [...] exemplaire de l'ouvrage d'Axular, dans le cabinet de M. Pressac, bibliothécaire adjoint de la ville de Poitiers» (Michel 1857: 1983, 475. oharra).

¹⁴ «Je ne connais que six exemplaires de cette édition» (Vinson 1891: 1984, 85).

¹⁵ 1898ko *Essai [...]* *Complement et supplement* liburuan, Vinsonek zuzenketa hau egiten dio 1891koari: «sept exemplaires» (Vinson 1898: 1984, 545).

¹⁶ Aurrerago ikusiko den bezala (Urkixok identifikatua), «amateur» hori José Manterola zen.

¹⁷ «Celui de Burgaud des Marêts, presque non rogné (il mesure 175 mm sur 115) appartient aujourd'hui à M. W.-J. Van Eys; il est en maroquin bleu plein, doré sur tranches, et a été relié par Trautz-Bauzonnet» (Vinson 1891: 1984, 87).

¹⁸ «Mon ex., qui était complet mais très sale et en fort médiocre état, était encore dans sa couverture primitive en parchemin lorsqu'on le confia au relieur Lenègre, de la rue Bonaparte, il y a douze ans; cet industriel a relié le vol. en demi-mar bleu, avec coins et tête dorée, mais il a entrepris de le laver: beaucoup de feuillets étaient moisissés ou trop fatigués pour supporter le lavage et un certain d'entre eux sont devenus inutilisables; de plus, une couseuse distraite, comme celle dont parle Barthélemy, a mis le ft B (pp. 9-10) entre les pp. 152 et 153: je conserve néanmoins ce précieux débris comme un spécimen des ravages du temps et des maladresses des hommes...*Reliquias Danaüm atque immittis Achilli!* » (Vinson 1891: 1984, 86).

Mende erdi bat beranduago ere ez zuen Lacombe ale ezagun guztien kopuruaren korapiloa askatu. Hark zioenez, hamar bat ziren bere garaian ezagutzen ziren aleak,¹⁹ ez beti osorik eta egoera onean. Guztiarekin ere, eta hemen aurkitzen du bibliofiloak harritzeko arrazoia, ez du bost besterik aipatzen: ordurako erakunde publikoen esku zeuden hiru (Chicagokoa —ez zuen zehaztu zein tokitan zegoen—, Pariseko Bibliothèque Mazarinekoa eta Paueko Bibliothèque Municipalekoa) eta San Remoko Jonkheer van Eysenean ikusitakoa. Erraz ohar gaitezkeen bezala, Vinsonen zerrendan agertzen ziren lauak. Horrexegatik hain zuzen, ustekabekoena bosgarrena da, Xahoren adiskide batek aipatua eta Lacombe Pressac-en eskuetatik igarotakoa izan zitekeela uste zuena.²⁰ Baina, tamalez, mota horretako aieru itxaropentsuak hutsalegiak suertatu ohi dira esku artean dugun liburuari dagokionez, dagoenaren oinarrian lotu nahi izaten baitugu ez dagoena ere.

Nolanahi ere den, eta «Oihenart-Pressac» izan zitekeen ale hipotetikoa kendurik, lau baino ez dira Lacombe aipatutako ale errealak, ez bat gehiago, ez bat gutxiago.

Zergatik eta nondik, bada, hamar bat ale ezagutzen zirela baieztatzea-rena? Nonbait —eta aieru hutsa baino ez da honako hau ere—, Axularren omena egiten ari ziren euskaltzaleen artean zelarik, ez zuen Orreagan aurkitutakoak eta bere bizpahiru aleak aipatzeko premiarik ikusi.

3. Egun munduan sakabanaturik dauden aleak finkatu eta zehaztu ahal izateko, ezinbestekoa dugu Vinsonen bibliografiari Urkixok erantsi ohar zehatzak ere gogoratzea, liburu baliotsuak biltzeko bilbotarrak erakusten zuen joera sinutsu samarrari albiste interesgarriak isurtzen baitzitzaizkion han-hemenka:

Como se verá, Vinson dice que no conoce más ejemplares que seis [haren lehenengo liburukian dagoen zuzendu gabeko informazioaz ari da Urkixo], de esta primera edición, de los cuales, añado yo, cuatro se encuentran en bibliotecas públicas. El del aficionado de San Sebastián, que no nombra (D. José Manterola), lo adquirí yo después, de sus herederos. Me deshice de él, hace años, porque había conseguido descubrir y comprar otros dos ejemplares que son los que conservo. El uno lo adquirí en Navarra y lleva el n° 1 de mi catálogo; el otro, el n° 6513 y lo compré a un librero de Pau (Vinson 1891: 1984, 84-85).

¹⁹ «De ce livre, justement célèbre dans la littérature basque, on ne signale aujourd'hui qu'une dizaine d'exemplaires plus ou moins complets et en plus ou moins bon état» (Lacombe 1943: 1956, 365).

²⁰ «Enfin dans des notes inédites, Serpeille, l'ami de Chaho, parle d'un *Guero* corrigé par Oihenart. Serait-ce celui de Pressac? Il est à souhaiter qu'on le retrouve» (Lacombe 1943: 1956, 365). Besterik ere ondorioztatu nahi izan zuen Vinsonek Pressac-en alea zela eta, bi ale baino ez ote ziren zalantza planteatu baitzuen: «Les deux ex. Pressac et Libri son indiqués aux catalogues comme reliés en mar. rouge par Duru; serait-ce le même exemplaire?» (Vinson 1891: 1984, 86). Ez dirudi, halere, aipatutako biak liburu bera direnik, Lacomberen ustez bederen.

Orreagan aurkitu bide zuen lehenean honako ohartxo hau jarri zuen Urkixok, erantsitako papertxo batean idatzirik: «Es uno de los dos ej. desconocidos de los bibliógrafos que encontré en Roncesvalles». Argi dago, beraz, orotara dozena eskas batera mugatu direla azken mende honetan ezagutu diren *Geroren* lehen edizioako aleak.²¹ Guztiak gordetzen ote dira?

Ikus dezagun zein diren egun «ezagutzen»²² direnak, Euskal Herrian daudenetik hasita.²³

A) Donostiako Koldo Mitxelena Kulturguneko «Julio Urkixo» ondareak *Geroren* lehen edizioaren bi ale ditu (signatura berarekin biak: J.U. 3376 CF 85). Lehenengoa, hainbat orri oharreztaturik izan arren, aski ongi konterbaturiko alea da²⁴ eta horrexegatik, hain zuzen, da bibliofilo eta euskaltzaleen artean ezagunena, Urkixok berak lehendabizi modu partzialean *RIE*ven²⁵ eta Euskaltzaindiak gero, 1988an, erabili baitzuten faksimil gisa argitaratzeko.²⁶ Ezinbestekoa da lehen edizioaren berri argia izateko eta edozein erkatze-lani ekiteko.

B) Donostiako Koldo Mitxelena Kulturguneko «Julio Urkixo» funtsetako bigarren *Gerok*²⁷ oraintsura arte atzeman ez diren bestelako ezau-

²¹ Lazkaoko beneditarren liburutegian bigarren ediziotik gordetzen diren bi aleetako baten (XXVI-25b AXU gue) jabeak ere (12. eta 623. orrialdeetan jabe gisa agertzen den Mariana Galharraga Ingoitiko etxeko andre azkaindarrak agian?) eskuen artean izan zuen 1643ko edizioaren ale bat, haren titulua («Guero bi partetan partitua eta... nahi çaiquana») kopiatu baitzuen lehen orrialdearen atzeko aldean.

²² Har bedi «ezagutu» aditza XVI. mendeko Indietako «aurkikuntza» hartu ohi den erlatibotasun maila berdintsuarekin, zeren eta, liburutegi partikularren ziurtasun-hermetismoa gorabehera, gerta bailiteke euskaltzaleek eta bibliofiloek «ezagutzen» ez dituzten aleak han-hor, galduak izan gabe, «aurkitzea».

²³ Komunikabideetan maiz zabaldu izan diren «hiri-legenda» gisakoak direla eta, argi utzi behar da Lazkaoko beneditarren liburutegian ez dela Axularren liburuaren lehen ediziorik. Orobat esan behar da Baionako Liburutegiari dagokionez; prentsan berriki bestelakorik baiez-tatu bada ere, bigarren edizioako aleak baino ez dira bertakoak.

²⁴ *Ex libris*aren ondoan Urkixok bere erreferentzia ezarri zion: «J. de U. 1». Guk ere, erreferentziak eta errazteko, lehen ale honi U-1 deituko diogu aurrerantzean.

²⁵ Zehaztapen gehiagorako, ikus Bibliografia.

²⁶ Desberdintasunak daude «faksimil» bien artean, eta ez beti Euskaltzaindiak argitaratutakoaren alde, biak aldentzen baitira, harrigarriro, jatorrizkotik. Bitxikerien artean, esaterako, 164. orrialdean gertatzen dena: lehen edizioetan (U-1 alean, Lacomberenean, Azkue Liburutegikoan...) ez bezala, testuaren alboko erreferentzia («Psal. 54.») 165. orrialdean agertzen da 1988ko faksimilean (baina ez *RIE*vekoan!). Bestalde, 257. orrialdean, alboan, zegoen eskuzko zuzenketa («ez» hitza) ezabatu egin da. Antzeko zerbait esan beharko litzateke, halaber, 135. orrialdean dagoenaz: testuaren alboko erreferentzia «Mathi.» hutsa agertzen da Euskaltzaindiko faksimilean. Besteetan, aldiz, *RIE*v bame, «Mathi. 4» agertzen da. Orobat, 171-172. orrian ere moztuta ematen dira alde bietako erreferentziak: lehenean «Miche» azaltzen da «Miche 7»-ren ordez, eta hurrengo orrialdean «Corin. 3.» «I. Corin. 3.»-ren ordez. Eta «visus» delakoa ere (586. or., alb.), xaxa mugitu zelako edo, lehen edizioan lekuz kanpo eta moztuta geratu zena, inolako aztamarik utzi gabe desagertu zen 1988koan. Eta ez ditugu hona ekarriko askoz ere gutxiago erabili ohi den *RIE*veko faksimilean dauden «ukituak» eta manipulazioak, letrazalea jatorrizko bertsiotik urrunarazten dutenak

²⁷ U-2, aurrerantzean.

garri interesgarriak ditu, beherago adieraziko den bezala. Berriztatu berria, eraberritzeak ezin izan ditu konpondu gillotinak moztuegi utzi zituen orrialdeak (eta, ondorioz, alboetako makina bat erreferentzia ere). Bigarren liburu hau 1732an Donibane Lohizuneko apaiza zen Robin poetarena izan bide zen garai batean:

Este segundo ejemplar lleva, a guisa de ex-libris, un escudo de armas, sin indicación de nombre de familia; y de debajo del mismo sobresale una inscripción, o mejor dicho, el final de una inscripción. Lo que se lee es: «binprêtre». En vista de ello, para mí, no cabe duda de que el ejemplar en cuestión perteneció al poeta vasco Robin [...]. Robin era «vicaire à Saint-Jean-de-Luz en 1732» (Urkixo in Vinson 1891: 1984, 85).

Argitu beharko genuke armari gisako *ex-libris* delakoaren papera ez dela azpian dagoenaz jabetzeko eragozpen, ez eta aierutan ibili behar izateko ezten, ongi asko irakurtzen baita «Robin» izena bere osotasunean. Are gehiago, pasarte zenbaiten zentsura puritano berantiarraren inguruko gogoetak beste baterako utzita, liburuan barrena dauden zuzenketa ortografikoek ere «Robin prêtre» idatzi duen lumatik eta tintatik sortuak dirudite, eta ez lehen edizioaren zuzentzaileen eskutik. Jatorriz inprentakoak izan litezkeen zuzenketa motari dagokionez, ale hau guztiz garbia da, ez baitu ezer zuzendurik.

Ale honen benetako garrantzia, edonola ere, ale kanonikoetatik bereizten duten ageriko berezitasun ortografiko eta tipografiko batzuk izatean datza. Plegu berezi bati dagozkio berezitasun horiek guztiak eta, nonbait, liburua- ren lehen galerada gisakoetan dute jatorria. Izatez, liburuan «M» izenarekin adierazirik agertzen den koadernotxoaren hainbat orrialde, erabili ohi ziren paperezko pleguetako baten alde bakarrekoak izanik, *princeps* edizioaren behin betiko inprimaldiaren aurreko fruitu dira, antza denez. Gainerakoan, ez bide du inprimategian eskuz egindako zuzenketa- rik.

Aurreko bi hauezaz gainera, badirudi Urkixorena izan zela zerrenda honetako hurrengoa ere, hots,

D) Gasteizko Eusko Legebiltzarreko liburutegiko alea (A 24-1; R-013305). Gillotinaren ukituren bat edo beste kenduta (ikus 39. or., 86. or., 93. or.), oso egoera onean dagoen alea da. Azalak larruz estalitako haritz- oholtzoz eginda ditu eta burdinazko bi erro liburua itxi ahal izateko. Badirudi J. Urkixok Jose Manterolaren oinordekoei erositako alea dela honako hau,²⁸ geroago, harrigarria bada ere, oparitu edo («me deshice de él») egin zuena. Ale hau, antza denez Baionako anonimo batek 1984an oparitua, K. Garaikoetxea lehendakariaren bitartez iritsi zen Eusko Legebiltzarrera.²⁹

²⁸ Azalaren barnealdean honela du idatzirik: «J. de U. 2» eta azpian «A-1». Hortaz, oker ez bagaude, egun Donostiako Kulturguneko U-1 delakoarekin batera, baina hurrenkeran bigarrentzat izan zuen Urkixok ale hau.

²⁹ K. Garaikoetxea lehendakari ohia- ri zor dizkiogun informazioen arabera, Orue Zabala senar-emazteen eskutik iritsi ziren Ajuria Enea *Geroren* lehen edizioko ale hau eta xv. mendeko kodize bat. Liburu bitxi hauen jabeak, ordurako alargundua, senar zuenaren desio bati

Aski liburu garbia da eta, lehen edizioko beste hainbat ale bezala, 1643ko eskuzko zuzenketarik gabea.³⁰

E) Lacombe Bibliotekako alea (OD-0/3). Euskaltzaindiko Azkue Liburutegian hiru CDren bidez³¹ kontsulta daitekeen ale honek Bergarako Olaso Dorrean bide du originala, izen bereko Fundazioaren ardurapean. Honako hau da Azkue Liburutegiak ematen duen informazioa: «Larru-azalez-tapena burdinaz urreztatua. Ataria hondatuta. Babestorrian eskuz idatzitako orri zati bat itsatsia liburuari dagozkion datuekin: “Extrait de l’Essai d’une bibliographie de la langue basque par Julien Vinson... C’est la 1re édition de cet ouvrage (1643)...”. Babestorrian eskuz idatzitako ondokoaren ex libris itsatsia: “M.D.J. Sallaberry d. Mauleón”».

Ale arras garbia da, inolako oharrik gabea (salbuespen bakarra ohar berantiar bat da, 86. orrialdean dagoena).³²

F) Lacombe Bibliotekako bigarren alea, Bergarako Olaso Dorrean berau ere. Oso egoera txarrean aurkitzen omen da eta, antza denez, birrindu egiten da ukitu orduko. Urtetan jasan duen giroaren lehorraz gainera, bestelako traetaera erasokorrik ez ote duen izan pentsatzen dute esku artean izan dutenek.³³ Ez omen du eskuzko oharrik.³⁴

G) Bilboko Azkue Liburutegian AK-720 identifikazioa daraman alea. Lacomberen ondaretik iritsia omen da ale hau ere. Deskribapenari dagokionez, ezer gutxi erants geniezaioke Euskaltzaindiko liburutegiko fitxan eskaintzen den informazioari: «Azaleztatugabeko alea. Ale osotugabea, ataria apurtuta, 3-56, 137-152, 251-262, 265-348, 421-422, 357-358, 411-412, 477-480, 559-560. orrialdeak eta 615. orrialdetik aurrera ments ditu. Eskuzko oharrak».³⁵ 1643ko *Geroen* arteko erkaketaren ikuspuntutik, oso da interesgarria ale hau, testuan barrena sakabanatutako zuzenketa gehienak inprimategiko zuzentzailearen eskutik ateratakoak baitira.

erantzun nahi izan omen zion horrela. Identifikatu gabe geratzea eskatu zien. Bestalde, bildutako bertsioen artean ez da falta orduko lehendakariaren beraren oparia, materiala bezain simbolikoa, ikusi nahi izan duenik ere. Ale honen faksimila honako helbide honetan ikus daiteke: <http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/AxularGero.pdf>

³⁰ Ale honek eskuz idatzirik dituen oharrak geroagokoak dira. Zenbaitetan latinez idatzitako lerrokkak (111. or.), inoizka testuan agertzen diren hitzen ordainak Hegoaldeko euskalkietan (113. or.: «ez aicinago»ren ondoan «ez aurrerago»...; «erdietsicoitutu»-en alboan «alcanzatu atrapatu...», etab.), gaztelaniazko pasarteak (119. or.: «tambien las buenas obras tienen su medida...»), gaztelaniazko ordainak (117. or.: «cinez»-en ondoan «deveras», «Erhoqueria»-ren alboan «locura», etab.), sinadura gisakoak han-hemenka...

³¹ CD-zenbakiak: 0114, 0115 eta 0116.

³² Ezin jakin daiteke noraino zebiltzan zuzen N. Altzolaren informatzaileak: «Monzonek daukala Bonaparterena, esan deustee. Baita beste bat be bai, eta balecitekeala Lacomberen liburutegitik etorritakoa izatea bera» (1967a: 12). Monzoneneko *Geroak* Lacomberen bildumakoak dira eta, bistan da, tartean ez zegoen Bonaparteren alea, egun Chicagon dagoena.

³³ Vinsonena izandako alea ote? Ikus 18. oharrean jasotakoa.

³⁴ Euskaltzaindiko Azkue Liburutegiko Josune Olabarria andereari zor diogu albistea.

³⁵ Erantsi behar da 359-360. orriari beheko zatia falta zaiola, «Halaber bi» esaten den lerrotik behera, hain zuzen.

H) Orreagako liburutegiko lehen edizioa ere oso ondo kontserbatzen da,³⁶ eta enkuadernazioak ez du lerrorik hondatu. Larruzko azalak ez du inolako letra edo irudirik eta egun despegatua du guztiz. Oro har, argitaratu zenean bezain garbi dago liburua, eskuz egindako zuzenketa eta ukitu bakan batekin, hain zuzen. Izatez, 540. orrialdearen ezker aldean, «iragaiten» hitzaren ondoan dagoen *pasaiten* hitzak berri samarra dirudi. Oro har, bada, U-1 bezalakoa da eta berdina ditu testua eta akats gehienak, inprimatzeari dagozkionak barne.³⁷

I) Iruñeko alea deituko duguna Aita Txotinodunek duten Liburutegi Nagusian³⁸ aurkitzen da (signatura: 1198/2/25; erreferentzia zaharra: 21.844).³⁹ Orri baten falta duen arren (359-360. or.), berriztatua⁴⁰ eta, oro har, ondo kontserbatua da Lekarozko ikastetxetik etorritako ale hau. Obraren lehen orrialde izenburudunean, beheko partean duen irudiaren ezker aldean, aipamen biblikoaren eta argitaratze-lekuaren artean, liburuak izandako jabe baten izena dago idatzirik: «D. Joaquin Lizarraga». ⁴¹ Ale garbi honek eskuz egindako zuzenketa gutxi batzuk besterik ez du, guzti-guztiak berantiarak eta puntuazio-markei dagozkienak. Bestalde, behegera ikusiko den bezala, ez zaio falta bitxi egiten duen ezaugarriak.⁴²

J) Paueko Bibliothèque Municipale delakoan dagoen alea (signatura: Ee 1106), Vinsonen arabera, «il provient de l'ancien collège des Jésuites de cette ville». ⁴³ Vinsonek idatzirik utzi zuen bezalaxe, ongi samar kontserbaturik dago

³⁶ Erret Kolegiatako liburutegiko erreferentzia: R. 2803. Sailkatze-errotulua: 26-C-1-1 (hots, anakela: 26; letra: C; zenbakia: 1; liburukia: 1). Azken orri zurian honako hau agertzen da eskuz idatzia: «En la mano y pluma de mí / Lorenzo de Baluyag[=z?]i. / Gauza on guztian / [...]».

³⁷ Azken hauetakoren bat aipatzearen, 495. orrialdeko 29. lerrokoa genduke nabarmenene-tako bat. Bertan lerro erdia baino gehiago mugiturik inprimatu zen eta horrela kaleratu zen.

³⁸ Biblioteca Central de los PP. Capuchinos.

³⁹ Nafarroako Gobernuak digitalizatua http://www.cfnavarra.es/BINADI/Ventanas/Entrada_eu.aspx delakoan.

⁴⁰ 425-432. orrialdeen goiko zatiak kontserbatzaileek berreraikiak izan dira eta testuak eskuz kopiatuak. Modu berean jokatu da 433-440. orrialdeetako zuloekin (4 cm × 2 cm ingurukoak). Konponketa horien berri zehatzik gordetzen ez bada ere, ez dirudi zaharregiak direnik, izan ere aurkibidearen azken orrialdea bera ere 2. ediziotik hartua baita eta itxura zaharreko paper sendo batean grabatua. Nolanahi ere den, gillotinaren eragina ez da handiegia suertatu (208. orrialdean, esaterako, beheko albo-erreferentziari lau lerroetako lehen letra moztu zaio).

⁴¹ Hasieran erantsitako orrialde zuri batean ere «Dn. Joaquín Lizarraga/ Elcanoco Vicarioarena» agertzen da idatzirik.

⁴² Bitxi egiten du, halaber, «P» izeneko kainerak oinarri duen pleguaren alde bateko orrialdeek erakusten duten inprimatze akastunak. Horrela, gehiago-gutxiago, nabarmen antzematen da tipoen itzala 217, 220, 221, 224, 225, 228, 229 eta 232. orrialdeetan (220-221etan ia bikoizturik ematera iritsi ziren lerro gehienak).

⁴³ Lehen orrialdean, tituluaren gainean, eskuz idatzitako «Regii Colegii d'Alensis» batek liburua non egon izan den adierazten digu. Modu berean, Axularren «Partitua eta berecia» delakoaren ondoren «Jesu» idatzirik dago. Enkuadernatzean emandako gillotina-kolpeagatik, dataren azpian eskuz idatzirik zegoena ulertu ezinean gelditu da.

alea.⁴⁴ Halere, ezin da gauza bera esan beranduagoko koadernatze lanei dago-kienez, mozturik utzi baitzituzten orrialde-bazterretako aipamen eta eskuzko zuzenketa nahikotxo. Oso dira interesgarriak eskuzko zuzenketa-emendailuak.

K) Pariseko Mazarine liburutegiko alea (erreferentzia: 49143). Vinsonek zioenez, «l'exempl. de la Bibliothèque Mazarine (n° 49143), relié au XVIII^e siècle en basane avec roulettes dorées formant un rectangle sur le dos et deux rectangles concentriques sur les plats, sans inscriptions ni nervures, mesure 156 mm 5 sur 107,5. Doré sur tranches, il avait un signet (vert?) que a été arraché. Le livre est complet, en bon état et propre, sauf quelques mouillures. Il porte le cahet en noir: "Bibliothèque de Sorbonne". Au v° de la couverture, en face du titre, est en long la cote "Théologie. 1628"» (Vinson 1898: 1984b, 545). Zenbaki bera mantentzen du egun. Badirudi Vinsonen «propre» kalifikatiboak oharrik gabea dela adierazten duela.

L) Van Eys-en alea Herbehereetako Leiden-en dago, Universitait Leiden izenekoaren Main University Library delakoan (Erreferentzia: UB Bijzondere Collecties [KL]; 1413 20).⁴⁵ Lacomberen ustez, *Geroren* alerik ederrena da honako hau: «Le plus beau de tous les *Gueros* actuels est celui que nous vîmes en août 1913, chez le Jonkheer van Eys, à San Remo. Relié en maroquin rouge par Trautz-Bauzonnet, doré sur tranches, presque pas rogné, avec témoins, il fut payé deux mille francs par la regretté euskarologue au libraire Jean Maison-neuve, lequel l'avait eu pour quatre cent vingt francs seulement, en mai 1873, à la vente Burgaud des Marêts» (Lacombe 1943: 1956, 365). Guztiarekin ere, aleaz iritsi zaizkigun deskribapenetan ez da kontraesanik falta.⁴⁶

M) L. L. Bonaparte printzearena izandako alea,⁴⁷ Vinsonen hitzetan, «est porté à son Catalogue (n° 1124) comme relié en «crushed levant»» (Vinson 1898: 1984, 545). Gaur egun Chicagoko Newberry Library izenekoan dago, «Special Collection» delakoaren barnean.⁴⁸ Liburu zeharo garbia da, eskuzko zuzenketa gabekoa.

Hamabi dira, hortaz, egun *Gero* liburuari lehen edizioan «ezagutzen» zaizkion aleak. Horiezaz kanpo, ez bide da besterik. Iritsitako informazioan oina-

⁴⁴ «L'ex. de la Bibliothèque de Pau (Ee 13. b. 18) mesure 164 mm. 5 sur 99. Il est assez bien conservé et en bon état, mais grossièrement relié» (Vinson 1891: 1984, 86).

⁴⁵ Haren liburutegiko liburu bitxiak (arraroak zein baliotsuak) Leideneko unibertsitatean daude, besteak beste, Leizarragaren bi *Testamentu Berri* (UB Bijzondere Collecties [KL]: 1367 F18 eta 1370 E22) eta Axularren *Geroren* bigarren edizio bat (1413 4).

⁴⁶ Lacombek «maroquin rouge» delakoaz koadernatu dela dioen bitartean, Vinsonek «maroquin bleu plein» delakoan koadernaturik ikusi bide du (ikus 16. oharra). Neurriak ere Vinsonenak ez bezalakoak dira van Eysek ematen dituenak (170 mm eta 110 mm.). Ezin jakin, bada, ale desberdinez aritu ote ziren.

⁴⁷ «Il fut acquis en 1859 à la vente Libri pour la somme de treize guinées soit environ trois cent quarante francs-or, par le prince Luis-Lucien Bonaparte, qui eut comme concurrent en ces enchères le British Museum» (Lacombe 1943: 1956, 365).

⁴⁸ Bonaparteren fondo guztiak UPV/EHUko Koldo Mitxelena liburutegian daude mikrofilmatuak. Chicagoko Newberry Libraryko signaturak gorde bazaizkie ere (kasu honetan, «Bonaparte 1124»), mikrofilmen antolamendua berria da. Dagokigun ale hau MP NCH 25 kutxan aurkitzen da.

rrituz, dena den, egia da hari zenbait lotu gabe geratzen direla lehen edizioko panorama honetan. Besteren artean, ez dugu Vinsonek berak izan zuen ale desitxuratu eta margulduaren berririk.⁴⁹ Bestalde, alferrikako ariketa dirudi duela ehun urte pasatxo Vinsonek luzatutako beste datu bati heldu nahi izateak, nekez jakin baikenezake nor zen Mauleko «amateur» hura eta, garrantzitsuago dena, zer gertatu zitzaion haren aleari.⁵⁰ Haren garaikide Urkixo bibliomanoaren itsasargiak aurkitu ez zuena zail luke aurkitzen egungo pospolo xume batek.

Nolanahi ere den, gureganaino iritsi diren ale horien arteko erkaketa batek nahikoa informazio eskain diezaguke moldiztegiak letra-tipoen bidez ezin eman izan zuen lehen argitaraldi «tipoa» izan behar zuen hartaz.

Horretarako ale interesgarrienak ez dira, bistan da, testuaren bertsio «ortodoxo-kanonikoak» edo eskaintzen dituztenak, ez eta birjinal mantendu direnak ere (faksimilen eredurako erabili ohi diren zuzen, garbi eta ukitugabeko horiezaz ari gara), besteak baizik, hau da, bekatuaren orbana agearian uzten dutenak: 1643ko behin betiko inprimaldiari ez dagozkion orrialde akastunak tartekaturik dituztenak, batetik, eta argitaratze-prozesuaren amaieran eskuzko zuzenketak jaso zituztenak,⁵¹ bestetik.

Ikus dezagun, exhaustibotasun asmorik gabe bada ere, zertan datzan haien garrantzia.

4. Beste toki batean zehatzago erakutsi den bezala (Salaberri 2007), Milangesen irarkolan akastuntzat hartu ziren hainbat orrialde jasotzen ditu U-2 delako aleak. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean gordetzen den ale horretan bada «M» hizkiarekin identifikatzen den kaieratxo bat, non gero *princepstz*at daukagun argitalpenean behar bezala zuzendurik kaleratuko ziren zortzi orrialde akastun agertzen baitira. Orrialde horiek 169, 172, 173, 176, 177, 180, 181 eta 184 zenbakiak daramatzatenak dira. Bistan da garaiko inprimategietan ohiko ziren pleru handi haietako baten alde bakar bateko akatsak suertatu zirela zuzenduak.⁵²

⁴⁹ Olaso Dorrean dagoen ale hondatua ote da Vinsonena?

⁵⁰ Lacombe gogora dakarkigun Xahoren adiskide Serpeille mintzo den alearen jabea ote zen mauletar hura?

⁵¹ Zuzenketok ale guztietan egiteko ziren arren (bostehunera iritsiko ote lehen inprimaldian argitaratu aleak?), pentsatzekoa da, lehendabiziko ale zuzenduak banatutakoan, eginkizunaren tamaina eskergak eta hartarako behar ziren denborak eta ardurak zuzenketa-lana uztera bultzatuko zituztela inprimategiko arduradunak. Horretan, nonbait, ale zuzenduak eta zuzendugabeak (bukatugabeak, alegia) aurkitzearen arrazoia.

⁵² Akatsak mota guztietakoak dira: ortografikoak, tipeoi dagozkienak, espazioei eta lerro banaketei dagozkienak, etab. Horrela, «ezcuy» (gero «escuey»), «Segurda» (gero «Segurda»), «fruituctaric» (gero «fruituetaric»), «bi.hia» (gero «bilha»), «biltcentu» (gero «biltcentu»), «iaanen» (gero «içanen»), «çnc» (gero «çuc»)... eta, aldaketarik azpimarragarriena, bi lerroen konposizioa ukitzearaino iritsi zena: «qui baititeque. Eta halatan hartaraz guero, / bere natura-leçac berac hala eracutsiric çuhaitz/ en contra...» (gero «qui baititeque. Eta halatan hartaraz guero, be-/re natura-leçac berac hala eracutsiric çuhaitz-/ en contra...»).

Nonbait haietaz oharturik, gaizki inprimatutako plegu hura⁵³ esku artean dugun liburua taxutzeko erabili zen, baina, aldi berean, zuzendu egin zen testua berunezko tipoetan. Hortik, beraz, lehen edizioak utzi dituen beste hamaika aleekin dagoen aldea.⁵⁴ Berdin-berdina ez den arren, oharño pare bat merezi du I aleak ere. Izatez, beste aleetan «378» bezala zenbaturik dagoen orrialdea Iruñekoan «379» zenbakiarekin markatua agertzen da. Aierutan gehiegi sakondu gabe ere, badirudi plegua gaizki inprimatuta zegoela ohartu ondoren zuzendu zutela tipografoek zenbakia. U-2 alean gertatu bezala, honako honen «Bb» plegua ere beste aleetako plegu berdin guztien aurretik inprimatua genuke.

Bestalde, Iruñeko aleak badu inprimatze akats txiki bat 316. orrialdean, alboan ezarritako erreferentzia baten hainbat hizki eta zenbaki lekutik at inprimaturik suertatu baitziren.⁵⁵

5. Bestelakoak dira aleen arteko bereizte-lanak sortzen dituen zailtasunak. Izan ere, eskuz egindako zuzenketak dituzten aleak ditugu, batetik, eta «garbiak» edo direnak, bestetik. Bigarren multzoko horiek inprimatutako edizioaren erreferentzia nagusitzat hartu izan dira eskuarki, baina testuaren osotasunaren aldetik, erantsi beharrik ez da, askoz ere garrantzi gutxiago dute inprentatik atera aurretik eskuz zuzenduak izan ziren aleek baino (egileek eta argitaratzaileek gogoan zuten argitalpenaren ikuspegitik begiratuta, noski, zinez esan baitaiteke han-hemenka geratu diren eskuzko zuzenketa horiek egileak nahi zuen edizio «zuzena» eraikitzen lagun dezaketela).

Hortaz, inoiz *Gero* liburua edizio kritikorik taxutuko bada, 1643ko edizio aleetan erantsitako zuzenketei erreparatzeari ekin beharko zaio lehenabizi.

Edonola ere, gogoan hartu behar da, ale batzuk inolako zuzenketarik gabe dauden bitartean, susmagarri samarrak direla beste aleetan tartekaturiko hainbat zuzenketa. Horrezaz gainera, lehen begiradan jatorrizko zuzenketa diruditenak dituzten aleetan ere emendailuak ez dira beti eta kasu guztietan berdinak edota garai berekoak.

Hori dela eta, inprentako zuzenketak identifikatu nahi dituen saioak testuari ez dagozkionak bereiztetik hasi beharko du, haietako ez gutxi beranduagoak baitira, urtetan barrena izandako jabeek erantsiak seguruenik. Bazterturik utzi beharko dira, esate baterako, XVIII-XIX. mendeetako moral

⁵³ Ezin jakin badaiteke ere zenbat izan ziren plegu akastunak, paperaren prezioak ahalik gehienak baliatzen (eta liburutzeren) bultzatu ohi zituen inprimatzaileak.

⁵⁴ Gaskellek gogorarazi bezala, inprimatze-probak egiteko moduan egon liteke desberdintasunen arrazoiak: «las pruebas se leían y se corregían en la imprenta cuando estaba a punto de comenzar la tirada. De hecho, en 1600, en las imprentas inglesas, podían hacerse lecturas posteriores una vez puesta en marcha la tirada, tomando uno de los primeros pliegos y leyéndolo (sin recurrir al original) a la vez que proseguía la impresión; después se paraba la prensa y se corregían los tipos; como consecuencia de ello, los ejemplares del libro contenían pliegos impresos con formas en diferentes estados de revisión» (Gaskell 1998: 442).

⁵⁵ Honako hau da erreferentzia: «Senec. lib./ de ira cap./ 28.». Iruñeko alean ezkererantz desplazatuta agertzen dira bigarren lerroko lehen hizkia («d e ira cap.») eta hirugarren lerroko zenbakiak. Edonola ere, ezker aldean lerrokaturik segitzen dute.

melengari zor bide zaizkion eskuzko ohar-zuzenketak (arlo horretakoak dira U-2k erakusten dituen ezabaketak —«içorratceaz», «amurusa»...—, berre-raiketak eta beste), Eusko Legebiltzarreko aleak dituenak, etab.

Ez dira falta, aldi berean, jatorrizko zuzenketekin batera, garbizaleegiak diruditen ukituak erakusten dituzten aleak ere. U-1 delako alean daudenak ezin garbiago mintzo dira horretaz: «placeretara» hitzaren parean «atseguinetara» idatzirik (27. or.), «ordenatu çuen, edo permititu» hitzen parean «nay icandu çuen» (29. or.), «fidatçetic» hitzaren parean «erraitetic» (33. or.), «emplegatçen» hitzaren parean «eramaten» (34. or.), etab.

Erkaketa, beraz, eskuz egindako zuzenketak dituzten aleekin edota zuzenketa aztarnak erakusten dituztenekin burutu beharko da. Guk, hor-hemen sakabanaturik dauden hamabi aleetatik hiru besterik ez dugu ezagutzen egin-kizun horretarako aintzat hartzeko modukoak: U-1 delakoa, Azkue liburute-gikoa eta Paueko alea.

Hiru ale horietako orrialdeetan zehar egindako zuzenketa gehienak zuzentzaile berberaren eskutik isuritakoak direla baieztatu daiteke eskuarki, berdinak baitira grafemen trazuak eta ezaugarriak. Ohar bekio, halere, ez direla hiru aleotako zuzenketa guzti-guztiak *Gero* argitaratu garaikoak. Gorago adierazi bezala, eskuz idatzitako oharrez zipriztindua dago U-1 delakoa, baina argi da ez direla denak esku beretik sortuak, ez garai berekoak. Hone-lako kasuetan, beraz, ezinbestekoa izango da bereizte-lan zorrotza.

Formalki lehen edizioako eskuzko zuzenketa hauek modu desberdinetan emanda daude: batzuk hizkien gaineko aldean kokaturik, hitza ukitu gabe; beste batzuk, hizkien gainean markatuak, zuzenean; ez dira falta, gaizkitzat harturik, ezabatu diren hitzak; beste zuzenketa batzuk —luzeagoak eta zirenak: hitz osoak, etab.— alboetan egin dira, testuan non tartekatu behar ziren markatxo batez adierazten zelarik.

Guztiarekin, bada azpimarratu beharreko bestelako oharkizunik ere. Izatez, zuzenketen identifikazioan lagundu dezakeen beste tresna ziur batez ere balia gaitzke, hots, *Guero* *guero* izenarekin kaleratu zen bigarren edizioaz hain zuzen.⁵⁶ Akatsez jositako argitaraldi honek, testuan zuzendurik (sistematikoki zuzenduak, gainera) eta inprimaturik agertzen ditu lehen edizioako aleetan eskuzko zuzenketatzat har daitezkeen asko eta asko. Eta gertakari hori, azpimarratu beharrik ez da, metodologikoki esanguratsua izan daiteke hainbeste akats dituen edizio batean. Okertzeko beldur gehiegirik gabe aurrera liteke, hortaz, eskuzko zuzenketak egiazkoak direnentz jakiteko irizpide berresgarria izan daitekeela bigarren edizioarekin erkatzea.

Nolanahi ere den, aurki kaleratuko da hemen adierazitakoa kontrastatu ahal izateko material-zerrenda, ez baitirudi honako hitzaldi honek 1643an argitaratu *Gero*-en arteko erkaketa zehatza saiatzeko lekurik aproposena.

⁵⁶ *Guero* *Guero*. *Bigarren Edicionea corrigetua, eta emendatua* (datarik gabea). Bordeleko G. Milanges-enean argitaratu omen zen edizio honek sorrarazten dituen buruhausteez, ikus Salaberri (2007b).

6. Tamalez, lan honen mugak erraz hautsiko lituzkeen bestelako elementuak ere utzi behar izan ditugu alboraturik, garai hoberen zain. Liburu zaharren artean dabilenak dakien legez, arlo ezberdinetako datuak atera daitezke haien orrietatik. Iruñeko alean, esaterako, argia da Lizarraga Elkanokoarena berarena izan daitekeen jarrera artatsuaren lekukotasuna. Guztiak berantiarrak, puntuazio-marka hutsei dagozkien zuzenketak besterik ez du ale horrek. Hemen koma bat erantsi,⁵⁷ koma bat kendu han,⁵⁸ horiek baino ez zituen «zuzentzaileak» akats ikusi.

Azkenik (*but not least*), anekdoten atalean geratu beharko den alderdi bat ekarri amaitu nahi genuke mintzaldia. Izatez, filologiaren esparrutik haratago bada ere, liburuaren artean diharduenak inoiz ez du ahazten liburuaren egoera fisikoa jabeen jarrera («literario», «moral», «artatsu», etab...) desberdinez ere mintzo dela ez gutxitan. Honatx, bada, ale diferentetako orrialde berdinetara mugatzen den anekdota esanguratsua:

Nonbait haragiaren tentazioei aurre egiteko, 349-361 orrialdeak (morboaren aldetik bezainbeste literarioki ere interesgarrienak: intzestuak, parrizidioak, etab.) ia ukitu gabe izan zituzten Iruñeko alearen jabeek luzaroan, beste orrialdeetan ez bezala, hauetako hizkien tintak, harrigarriro, hasiera bateko laztasun bera mantentzen baitu oraindik ere.

Zeharo bestelakoa da A alearen jabeen kasua. Aski bedi 349-356 orriertz xahutuei begirada bat ematea ohartu ahal izateko zenbat eta zenbat aldiz igaro diren begiak kapitulu horietako letren gainetik, eta pentsatu ahal izateko —gure aierua da hau, noski!— zenbat lasaitu goxo —agian ez beti eta ez bakarrik espiritualak!— ez ote zituen hartuko haien eskuztatzaileak.

Susma daitekeen bezala, idazlan bereko atal beraren irakurleen sentsibiltate-desberdintasun horiek *Geroren* errezepzioaren esparru zabal bezain ignotorako bidean jar gintzakete ziurrenik... Gaurkoz, dena den, aski luzatu zaigu Saran eroritako aerolitoari buruzko disertazioa.

Mila esker.

Bibliografia

- Alzola, N., 1967a, «Naparroan. Orreaga aldetik», *Egan* 27, 11-20.
 —, 1967b, «El Gero de la biblioteca de Roncesvalles» *BAP*, 444.
 —, 1970, «Orreagako Gero-alea», *BAP*, 338.

⁵⁷ Ikus, besteak beste, 304. or. (30. lerroan: «da /, biz»), 382. or. (1. lerroan: çaita /, rra-bailla»), 565. or. (24. lerroan: «Eguia da/,»); 25. lerroan: «ongui /,»), 580. or. (3. lerroan: «da /, eta»), etab.

⁵⁸ Besteren artean, honako koma hauek ezabatu ziren: 412. or. (15. lerroan: «Erraxqui, eguiten da»), 527. or. (10. lerroan: «oraico, cofesatcean»), etab. Dena den, egungo irakurleari bitxi samarra egiten zaio puntuazio-markekiko jarrera hori, zuzendu gabe uzten baitira gainetako akats ortografiko eta tipografiko —ustez— larriagoak. Adibidez, 569. orrialdean koma ezabaketa bikoitza (15. lerroan: «gure, guero, hunek») *versus* lau lerro beherago dagoen «anhantz» hitza.

- Axular, 1643, *Guero bi partetan partitua eta berecia...*, G. Milanges, Bordele.⁵⁹ (Faksimiltzat argitaratua: Euskaltzaindia, Bilbo, 1988. Honen aurretik, bertsio bukatu gabea eta zatika argitaratua aurki daiteke *RIE*Ven).⁶⁰
- , d./g., *Guero Guero. Bigarren Edicionea corrigetua, eta emendatua* (Eusko Legebiltzarreko Liburutegian dagoen bigarren edizioko alearen faksimila, Bilbo, 2006).
- Bouza Álvarez, F. J., 1994, «Coleccionistas y lectores. La enciclopedia de las paradojas», in Alcalá-Zamora, *La vida cotidiana en la España de Velázquez...*, 235-253.
- Desgraves, L., 1995, *Dictionnaire des imprimeurs, libraires et relieurs de Bordeaux et de la Gironde (xve-xviii siècles)*, Baden-Baden.
- Gaskell, Ph., 1998, *Nueva introducción a la bibliografía material* (Hitzazurea eta berrikusketa teknika: J. Martínez de Sousa), Gijón.
- González de Amezúa y Mayo, A., 1946, *Cómo se hacía un libro en nuestro Siglo de Oro*, Madril.
- Grimal, P., 1966, *L. Annaei Senecae de breuitate uitae*, Paris.
- H(ermano) V(alentín) B(erriochoa) = Alzola, N.
- Lacombe, G., 1918, «La bibliothèqne basque de van Eys», *RIE*V 9, 66-68.
- Larramendi, M., 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia.
- Olaizola, J. M., 1993, *Historia del Protestantismo en el País Vasco. El reino de Navarra en la encrucijada de su historia*, Iruña.
- Salaberri, P., 2007a, «Axularren Gero liburuaren ale kasi birjinalako 'M' pleguaz», *FLV* 105, 303-323.
- , 2007b, «Axularren Gero liburuaren bigarren argitalpena lehenaren argitan», *Egan* 3/4, 173-200.
- Schuchardt, H., 1900, «Üeber die Einrichtung des Neudrucks, insbesondere über die Druckfehler und Varianten bei Leizarraga» in Th. Linschmann eta H. Schuchardt (arg.): *I. Leizarraga's Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) im genauen Abdruck*, Strassburg, ix-cxvi or. (orain liburu honen edizio faksimilean: «Sobre el modo de disponer la reimpression, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga», Bilbo, 1990, 131-214).
- Urquijo, J. (in Vinson 1891-1898).
- Villasante, L., 1974, «Bibliografía Axulariana», *FLV* 16 (= número extraordinario *Homenaje a Axular*), 135-152.
- Vinson, J., 1891-1898, *Bibliographie de la Langue Basque (Volúmenes I y II)*, Donostia, 1984 (1891ko *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* eta 1898ko *Complément et Supplément* liburuen edizio bateratua, eta J. Urkixoren oharrez hornitua).
- Xaho, A., 1836, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Paris. Gaztelaniaz: *RIE*V 20 (1929, 105-127, 182-206, 350-377 eta 460-493) eta 21 (1930, 98-152).

⁵⁹ Gasteizko Eusko Legebiltzarreko alearen faksimila honako helbide honetan: <http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/AxularGero.pdf>

⁶⁰ *RIE*V IV (419-472 eta 517-572), V (283-374), VI (5-99, 334-384 eta 441-482), XI (11-42) eta XXIV (73-88). Ikus: <http://www.euskomedia.org/riev100/eu>.

